

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko maiatzaren 26ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– **Foru dekretuak:**

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 16/2020 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa. Onestea Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretua aldatzen duen Kontseiluaren urtarrilaren 21eko 4/2020 Foru Dekretuaren indarraldi data aldatzea.

**NEKAZARITZA SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 17/2020 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 7ko 13/2020 eta 14/2020 foru dekretuen aldatetari.

– **Erabakiak:**

**DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 213/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren A plana, Covid-19aren eraginetatik Arabako Lurralde Historikoan Ekonomia Berreskuratzekoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 214/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Premiazkotzat eta beharrezkotzat jotzea maiatzaren 26ko 213/2020 Erabakian jasotako neurriak arautzea xede duten arau xedapenak egiteko eta onesteko prozedurak, bai eta deklaratzeko ere interes publiko larriko arrazoiak daudela, justifikatzen dutenak herritarrek parte hartzeko izapideak ez egitea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 215/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Indarrrik gabe uztea larrialdi deklarazioa, kontratazio prozeduretan COVID-19ari aurre egiteko neurriak hartzetik eratorritako premiei erantzuteko zena.

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 216/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren eta bere erakunde autonomoen 2020rako Proiektu Informatikoen Urteko Planari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 217/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onespena ematea "Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE SA" sozietatearekin ziurtapen elektronikoko eredu komun bat garatzeko sinatutako hitzarmenaren gehigarriari.

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 218/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onestea 4/2020 konpromiso kredituaren transferentzia espediente, 450.000,00 eurokoa, 2021 eta 2022 urtekoei dago-kiena, "Zergak Kudeatzeko Informatika Programa AKSA" partida funtsez hornitzeko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 219/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onestea aurrekontua aldatzeko zenbait espediente, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta, "Aplikazio

informatikoak” eta “DEI korporatiboa. GeoAraba proiektuak” partidetako aurrekontu esleipena egokitzeko Proiektu Informatikoen Urteko Planean aurreikusitako zenbatekoetara.

Foru Gobernu Kontseiluaren 220/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onestea onartu dela Valderejoko Administrazio Batzarrak doan besterentzea Lalastrako gindaxa Arabako Foru Aldundiaren alde.

#### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 221/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onestea “A-625 errepi-dea, 357,30 KPtik 354,22 KPra arte, egokitzeko eraikuntza proiektuaren” linea elektrikoa aldatzeko lanak egiteko okupatu behar den azalera handitzea.

#### GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 222/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onestea abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren bigarren luzapena, udaletako gizarte-zerbitzuen prestazioa behin-behinean mantentzekoa.

#### NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 223/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onespena ematea Grupo TRAGSA enpresaren aldeko kontsignazioa handitzeari (enpresaren izena: Tecnología y Servicios Agrarios SA, SME, MP –TRAGSATEC–), etxeko animalien edo Arabako Lurralde Historikotik datozen animalien gorpuen tratamendurako zerbitzua emateko 2020ko ekainaren 30era arte.

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 224/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko puntu berde mugikorraren zerbitzua emateko kontratazio espedienteari, 561.000,00 euroko zenbatekoan, BEZa barne, eta gauzatzeko 3 urteko epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 225/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Onespena ematea “Aiteko Management SL” enpresari Uribarri Ganboako urtegian sorospen, salbamendu eta erreskate zerbitzuak luzatzea 2020ko bainu aldirako, 143.427,44 euroan, BEZa barne.